



Churrería Renteriana zelakoa

Jose Luis Insausti Urigoitia

Laz, Gorpuzti egunaren zortziurrena ospatzeko Madalen kalean jaiotakoek urtero egiten dugun afarian, artikulu hau idaztera animatu nintzen, guretzat oso maiteak diren jaien ospakizun hartako adiskidetasun-giro paregabea; izan ere, bertan elkartzen garenoi ilusio handia egiten digu urtero berriz ere elkartzeak, denok ez baikara Errenteria-Oreretan bizi.

Urtero, afalondoan haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenez aritzen gara, eta familiak, dendak, jaiak eta gure herriko bizitzaren pertsonaiak aipatzen ditugu, besteak beste.

Iaz 1960ko hainbat argazki eraman nuen afarira, eta argazki haien harira hainbat kontu atera genuen. Urte haietako hainbat pasadizo eta gertaera ekarri genuen gogora.

Aspaldidanik nerabilen buruan Churrería Renteriana txurro-dendaren historia Oarso aldizkarian argitaratzea. Jaiotzez Burgoskoa zen Jose Bazigalupe eta Altzako Iparragirre baserrikoa zen Carmen Zapirain ziren arduradunak. Gure herrian oso maitea zen familia hura; izan ere, ziur nago familia gehienak joan izan ginela lehendabizi haien etxolara eta ondoren Erdiko kalean izan zuten dendara.

Orain dela urtebete Carmenekin harremanetan jarri nintzen eta esan nion hainbat kontuz aritzeko ilusio handia nuela: zer gertatu zen txurro-dendarekin, bertan zer bizipen izan zituen Carmenek, etab. Hark, ordea, ezezko biribila eman zidan, inork horri buruzko interesik izango ez zuela uzte baitzuen. Argazki batzuk nituela eta hark ikustea nahi nukeela esan nion. Beste egun batean





elkartzekotan geratu ginen eta bigarren topaketa hura oso interesgarria izan zen. Carmenek ere hainbat argazki ekarri zuen eta, orduan, argazki haiek gure herriaren errealitatearen eta historiaren zati bat direla ulertarazi nion. Carmen errealitate hartaz jabetu eta txurro-dendan bere senarra Jose-rekin izandako bizipenak kontatzen hasi zitzaidan.

Jose Bazigalupe Errenteria-Oreretara 1939an iritsi zen. 1946an Feli Saldias nafarrarekin ezkondu zen. Alaba bat ere izan zuten, baina zoritxarrez haurrak hiru urte zituela Feli hil egin zen. Hainbat

urte igaro ondoren Carmen Zapirain eta Jose elkar ezagutu eta 1958an ezkondu egin ziren, Joserren alabarekin familia berria osatuz.

1950 urtetik 1960 urtera txurro-denda Luzio Zalakain etorbidean egon zen. Josek izan zuen lehenengo etxolak bere izena zeraman, baina urte gutxiren buruan gure herriko Maderas Uranga aroztegikoei etxola berri bat eskatu zien eta Churreria Renteriana izena jarri zion. Etxola berri honek abantaila handiak zituen askoz ere errazago jartzen eta kentzen baitzen; izan ere, Joserren asmoa



Gipuzkoako ferietan eta jaietan saltzen aritzea zen, eta halaxe ibili zen, besteak beste herri hauetan: Ezkaray, Prado Luengo, Erbias, Cerezo del Río Tirón, Casa Larreina, Buenavista, Herrera, San Pedro, Pasai Antxo, Trintxerpe, Errenteria-Orereta, Oiartzun, Irun, Hondarribia, etab.


Errenteria-Oreretako Udalak, 1959an, merkatu berriko lanak oso aurreratuta zeudela eta laster inauguratuko zela jakinarazi zien; hortaz, txurro-denda zuten tokia libre utzi beharko zuten. Zur eta lur geratu ziren, merkatu zaharrean, Foru plazan alegia, ez baitzuten inoiz arazorik izan. Carmenek, orduan, gaiari heldu eta lanari ekin zion.

Lehenik eta behin, Donostian oso ezaguna zen arkitekto batengana jo zuen, Carmenek emandako jarraibideen arabera proiektu bat presta ziezaion, ondoren Udalean aurkezteko. Proiektu horren arabera, txurro-denda kanpoko aldean

kokatuko zuten, merkatu berrira itsatsia, eta Las Rosas eskolaren eta etxeko hormaren kontra. Proiektu hura 1960ko urtarrilean aurkeztu zuten eta udalbatzak kokapen hori atzera bota zuen, etxeko goiko aldean terraza bat zegoela argudiatuta. Carmenek etxean gordeta eduki zuen proiektua, plano eta guzti. Kalte handia izan zuen, proiektua zela-eta gastu handiari egin behar izan baitzion aurre.

1960ko martxoaren 1ean, merkatu berria inauguratu zuten. Carmenek, bestalde, lokal bila jarraitzen zuen, une hartan txurro-denda noiz itxiaziko zain baitzeuden.

Apirilean, asko begiratu ondoren, asko negoziatu ondoren eta udalak jarritako oztopoak gainditu ondoren, lokal bat topatu zuten Erdiko kalean. Bertan igaro zituzten ondorengo 22 urteak, Josek 1981ean erretiroa hartu zuen arte. Txurro-denda, berriz, 1982 urtean itxi zuten.



Txurro-denda egunero zabaltzen zuten eta Carmen goizero merkatuko plazara joaten zen bere saski eta txurroekin, oso harrera ona izaten baitzuen. Egunero txukun-txukun joaten zen, gainera, parpailak zituen mantala zuria eta beso-erdiak jantzita.

Carmenek esan dit herriko hainbat erakunderekin eskuzabaltasun osoz aritzen zela. Egun batean pilota jaialdiko antolatzaileek dei egin zieten udal pilotalekuan txurroak saltzera joateko eta txurro-denda inprobisatu behar izan zuten. Baina azkenean, denak poz-
pozik geratu ziren, partiden arrakasta zein txurro janaren arrakasta erabatekoa izan baitzen.

Churrería Renterianak produktu sorta zabala eskaintzen zien egunero bezeroei; haien artean, txurroak, buñuelo edo kruxpetak eta bonbak nagusitzen ziren. Ondoren, patatak, txurro beteak, etab., egiten hasi ziren. Urteetan lortutako esperientziari esker eta negozioa eksklusiboa zenez, bezero bakoitza gogobetetzea lortzen zuen. Garbitasuna, kalitatea eta arreta pertsonalizatua izan ziren Churrería Renterianaren arrakastaren gakoak. Lehen mailako produktua egiten zuten, kalitatekoa eta tradiziozko moduan egina.

Txurroa gosaritarako jakia da. XVIII. mende hasieran sortu omen zen, eta txokolate likidoaren osagarri egokia da. Txurro-dendek arrakasta handia izan zuten garai batean, baina elikagaien industria-
produktzioa zabaldu zenean, asko eta asko desagertu egin ziren. Gure herrian jaietan eta urte sasoi jakin batzuetan ikusten dugunez, ez da leku

handirik behar txurro-denda bat jartzeko. Gehienak orgen gainean jartzen dira, erraz instalatzeko.

Egia da, bestalde, txurrogintzan diharduten gutziek esaten dutela txurro onak egiteko irin ona eta olio ona erabili behar dela eta osagaiak ongi eta goxo oratu behar direla. Txurroa goxatu egin behar da eta bero, eta ahal bada egin berria eskaini behar da. Lehen esan dudanez, oso txurro-denda gutxi geratzen dira, baina txurroak goizean goiz jateko ohitura ez da inoiz galduko.

Eta zer gozoak diren gaua parrandan eman ondoren, ezta?

Carmenek kontatutako pasadizoen artean, orain adieraziko dudana nabarmenduko nuke. Carmenek esan didanez, bere senar Jose asko haserretzen zen abesti hau abesten ziotenean, baina Carmenek ondo eramaten zituen gau-pasan zeuden haiek eta ez zuten arazorik izan:



*Si quieres vivir alegre
Cásate con la churrera
Toda la noche estarás
Churro dentro churro fuera.*

Amaitzeko nire eskerrik beroenak Carmen Zapiraini egin didan harreragatik eta Churrería Renteriana hobeto ezagutzen eta gogoratzen lagundu didalako.

Argazkiak: Carmen Zapirain
eta Jose Luis Insausti.

